

BERGARA

Tailer berria urritasunak dituztenentzako

Automozio sektorean eta makina automatikoen kableatuan berezituko da



Adimen gaixotasunen bat duten hainbat lagun Gureak lantegi batean lanean.

Maiatzaren 24az geroztik, Deba arroan urritasun fisiko zein psikikoren bat duten langileek zerbitzu eta baliabide gehiago dituzte eskura. Izan ere, hiru solairu eta 1.200 metro karratuko hedadura duen Gureak lantegi berria, dagoeneko, martxan da Labegaraia Industrialdean. Gutxituen gurasoek osatutako Atzegi elkarteak bideratutako proiektua, dena dela, ez da lantegi soila izango. Zerbitzu berri batzuk ere eskainiko ditu, Debagoieneko langileendako oso garrantzitsuak.

Orain arte, Gipuzkoako Gureak lantegi guztien kudeaketa Donostian egiten zen. Orain Debagoieneko, Debarreneko eta Urolako eskualdeetako lantegien bulegoak Bergarako lantegi berrian izango dira. Horrek, Asier Vitoria Bergarako Gureak lantegiko gerentearen hitzetan, «gure bezeroei erantzun hobe emanen lagunduko du».


Bestalde, bertan lan egiteaz gain, beste zerbitzu batzuk ere badituzte Gureak lantegikoek. Izan ere, Uliazpi Fundazioarekin harremanetan, jangela, 10 lagunendako Bizileku Zerbitzua eta 20 lagunendako Egu-

neko Zentro Zerbitzua dituzte aukeran. Azken horrek berebiziko garrantzia dauka, Debagoienean orain arte ez baitzen antzeko zerbitzurik eskaintzen, nahiz eta eskaera handia egon, eta Asier Vitoriaren iritziz, «behar-beharrezkoa da aisialdi alternatibo gisa» urritasun larrienak dituztenentzako. «Adin batera iristerakoan, urritasun handiak zituztenek lantegia utzi eta etxean geratzen ziren orain artean, baina hemendik aurrera beste aukera bat izango dute zerbitzu berriarekin».

Pertsonen autonomia

Bizileku zein Eguneko Zentro zerbitzuak Paul Zubillaga izena eramango duen eraikinean kokatu dira, Toki Eder plazan. Zerbitzu hauek 18 urtetik gorakoek jaso ahal izango dituzte eta lehentasuna emango zaie gaur egun bestelako zerbitzurik jasotzen ez duten gaixoei, baita beste herriren bateko egoitzaren batean egonda ere, etxetik hurbilago egon nahi duten debagoiendarrei. Bestalde, egoitza herrigunetik gertu egoteak badu bere arrazoiak: «Zerbitzua jasoko duten pertsonen autonomia, parte hartzea eta komunitatean sartzeko aukera bultzatzea», dio arduradunak.

Bergarako lantegi berria automozio sektorean eta makina automatikoendako kableatuan espezializatuko da eta bi atal izango ditu: muntaiarena, 65 langilerekin, eta makina automatikoen kalbeatua egiteko atala, 30 lagunekin.



- ★ Euskal herriko areto guztietako filmak
- ★ Estreinaldiak
- ★ Kritikak

www.Egunkaria.com/zinema



UR kristaldegia

Kristalak oro har
Ispiluak, beirateak, biselatuak
Isolatzaileak, plastikoak, etab.

Martokua, 1-3 behea - BERGARA - 943 76 54 68 tel.



AUTOLEYMA

AUTO BERRIAK
ETA ERDI BERRIAK

Haitz Iturri, 5 - S.Lorenzo auzoa
20570 BERGARA

Tel / Faxa: 943 76 09 30
Mugikorra: 607 40 31 56



disdira

ileapaindegia

Ordutegia:
Astearte-osteguna: 9 - 16
Ostirala: 9 - 18
Larunbata: 7,30 - 13,30

Masterreka, 7 • BERGARA • Tel.: 943 76 00 55



PESCADERIA JOXAN

ARRAINDEGIA

Ibargarai, 24
20570 BERGARA
Tel. 943 76 70 29

BERGARA

Margoak

Amillaga 1 - Goiko Solairua 1. Pab
162 P.K.
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 • Faxa: 943 76 97 32
e-mail: bergara.margoak@terra.es



KALITATEA ETA ZERBITZUA



UNED-BERGARA IKASTETXE ELKARTUA

CENTRO ASOCIADO UNED-BERGARA

• Urrutiko Hezkuntza Unibertsitatea •

Egunero klasera etortzea ezinezkoa bazaizu... Utzi zenituen ikasketak jarraitu eta amaitu nahi badituzu... Bigarren karrera bat egin nahi baduzu... Ikasi izan ezin zenuena ikasteko garaia iritsi dela uste baduzu...

UNED-BERGARA IKASTETXE ELKARTUAN MATRIKULA ZAITEZ!

Zuzenbidea, Turismoa, Ekonomia eta Enpresen Administrazioa, Filologia, Zientziak, Ingeniaritza, Informatika, Geografia eta Historia, Soziologia eta Zientzia Politikoak, Filosofia, Psikologia, Psikopedagogia, Hizkuntzak, 25 urtetik gorakoentzat Sarrera Ikastaroa.

■ Tutoretzak internet bitartez

UNED-BERGARA
San Martin Enparantza z/g
20570 Bergara



Informazioa
tlf- 943 76 90 33
info@bergara.uned.es
www.uned.es/ca-bergara